

Jose Maria jauna, zer egingo dugu?

Arizmendiarrieta 1915eko apirilaren 22an jaio zen familia apal batean, Markina–Xemeingo Barinaga elizatean, Bizkaian, eta 1976ko azaroaren 29an hil zen, Arrasaten (Gipuzkoa), 35 urtez Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren ideologo eta sustatzaile gisa lan oparoa egin ondoren, zeinak aitorten unibertsala baitu. Hil zen egunetik bertatik hasi zen kooperatiba mugimendua haren irakaskuntzaren eta jarraibideen umezurtz sentitzen.

Are gehiago ziurgabetasun kezkarriko une hauetan, bai eremu geopolitikoagatik – bi gerra gertu (Ukraina eta Gaza), milaka hildakorekin, eta era guztietako ondasunen suntsipen masiboarekin–, bai inflazioaren presioagatik, energiaren eta elikagaien prezioen ondorioz. Gainera, mundu mailako hegemonia lortzeko borrokan ari diren bloke ekonomikoen arteko gerra komertziala dago. Garapen teknologiko azeleratuaren eremuak ere etorkizuneko bideari buruzko ziurgabetasunez betetzen gaitu. Ahaztu gabe beste arazo batzuk, ez horregatik txikiagoak, hala nola ingurumenaren degradazioa, immigrazioa eta populismo politikoak.

Ingurumaria horretan, gustatuko litzaziguke Jose Maria jaunari galdetzea zer egin behar dugun, orientazioa eskatzea haren ikuspegi ekonomiko eta sozial aitortutik, baina, jakina, hori egiteko ezintasun agerikoa ikusita, haren irakaskuntzei buruz hausnartu behar dugu, eta, horretarako, gogoeten dekalogo bat dugu, edozein egoeraren aurrean posizionatzeko behar beste ilustratzen gaituena.

Gogoeta horiek irakurrita, ziur egon gaitezke haren erantzunak sei eremu hartuko lituzkeela:

- Lehenik eta behin, **eredu kooperatiboaren** alde egiten jarraituko luke, garapen ekonomikorako enpresa formularik onena den aldetik, bai oparotasun garaian, bai krisi garaian. Haren gogoetetan honako hau irakur dezakegu:
“Kooperatibismoak gizakian, lanean, zintzotasunean eta giza bizikidetzan jarritako fedea baieztatzen du, sustapen iraunkor eta progresiboa helburu”.
(463. gogoeta.)
- Bigarrenik, **lanaz eta erantzukizunaz** hitz egingo liguke; binomio banaezina baliabide natural handirik gabeko herrialde batean, non bertako jendearen ahalegina baita oparotasunerako bide nagusia. Gogorarazten digun bezala:
“Kooperatibismo osasuntsu baten oinarrian erantzukizun zentzu sakona duten gizakiak izan behar ditugu, prozesu ekonomikoan pertsonalki inplikaturik daudenak eta dagokien komunitatearen presio sozialaren mende daudenak”.
(125. gogoeta.)
- Hirugarren kontsiderazioan **berrikuntza** planteatuko luke, Arrasateko Esperientzian beti presente egon den elementua, Eskola Profesionalaren hasiera-hasieratik: kudeaketa eta produktuak egunero aldatu behar dira, gertaeren bilakaerara egokitzeko. Haren hitzak gogoratzen ditugu:
“Ongizateaz gozatzeko jarraitzeko, eta libre izateko, hobeto lan egiteko prest egon behar dugu, giza eta gizarte baldintza hobeto, eta kalitatea eta egokitasuna direla-eta munduan desiragarriagoak izango diren produktu eta gaitasunekin”. (283. gogoeta.)

- Laugarrenik, **lankidetz**a azpimarratuko liguke, ikuspegi zabal batetik: talde lana, kooperatiben arteko proiektuak, unibertsitate eta erakunde publikoekiko lankidetz
- Bosgarren lekuan –ordenak ez dio garrantzirik kentzen–, **elkartasun**aren beharra gogoraraziko liguke, bere eragin hirukoitzean; kooperatiba barruan, kooperatiben artean eta gizartearekin. Gogora dezagun planteatzen ziguna:
*“Zalantza barik, kolektibitate baten ezaugarririk itxaropentsuena, interesatzen dena eraikitze**ko eta etorkizunera begira jartzeko bat egiten jakitea da”*. (302. gogoeta.)
- Azkenik, eta aurreko guztiaren bilgarri gisa, **hezkuntz**a azpimarratuko liguke, bai gazteriarena, bai lanpostu bakoitzaren behar berrietara egokitzeko etengabeko prestakuntzaren beharra. Etengabe predikatzen zuen:
*“Hezkuntza da gure gazteen eta gure gizartearen zoriaren eta etorkizunaren gako**a”*. (209. gogoeta.)

Segur aski, beti egiten zuen bezala, ikuspegi baikorrenetik etsi gabe lanean jarraitzera animatuko gintuzke:

“Unean uneko egoerak, berez, ez dira ez onak ez txarrak, norberak izatea nahi duena izango dira. Aukerak horien alde egitea erabakitzen duenarentzat existitzen dira”. (111. gogoeta.)

Oñati, 2024ko apirilaren 15a

Jose Ignacio Garate

ALE– Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko bazkidea